



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2018ko abuztuaren 20tik 24rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: PMI KONPOSATUA



Datuaren analisisa

Irroguneko sektore pribatuaren jarduerak hazkunde etengabea izan zuen abuztuan, **PMI indize konposatuaren** datu aurreratuaren arabera, uztailleko 54,3tik 54,4 punturaino sendotu zena. Zerbitzuen sektoreko jardueraren datu aurreratuak 54,4 puntura igo zen abuztuan, uztailleko 54,2tik, hiletan izan duen mailarik onenena. Manufaktura sektorean, berriz, PMIa 54,6koa izan zen, irreko hileko 55,1aren aldean, hogeita bat hiletan izandako emaitzarik txarrena.

Adierazlearen azalpena

Irroguneko zerbitzuen eta manufaktura sektoretako 5.000 enpresari baino gehiagori hileroko galdetegi baten erantzunetatik lortzen da PMI Konposatua. Bi sektore horien aldean onomiararen egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, aste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, aste baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan daiteke; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzurtzen ari den seinalea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EBZren ETA FEDen AKTAK



Datuaren analisia

ste honetan, **EBZren uztaileko azken bileraren aktak argitaratu ziren**, eta EDBko inflazioaren a bere epe ertaineko helburuen arteko bateratasunaren gaineko konfiantza erakustez gain, EBn eta Txinaren arteko gerra komertziala jo zuten kezka-faktore nagusitzat. Akten arabera, azkunde ekonomikoan eragin negatibo esanguratsuak izan ditzakeen norabide baterantz egin zake politika komertzialak”. Horrez gain, **FEDen aktak** eman ziren ezagutzera. Bada, erakundeak llerazi zuen prest dagoela irailaren 26ko hitzorduan tasen igoera berriak egiteko. Nolanahi ere,undu mailako tentsio komertzialak jardueran izan dezakeen eragin negatiboari buruzko beldurra eagoitu zen.


Adierazlearen azalpena

ropako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den akundea da. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen onkortasunari eustea da.

ederal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-litikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren onkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko akunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

¶Iak urte arteko % 0,8 egin zuen gora uztailean, eta dagoeneko hemezizigarren hilabetez jarraian in du gora, kostu energetikoaren garestitzeagatik batez ere. Adierazleak ez zuen aldaketarik izan aineko % 0,8ko igoeratik. Elikagaien prezioa, bere hegazkortasun handia dela-eta, adierazletik npo dago. Erregaien, uraren eta argiaren prezioen garestitzea, urte arteko % 3,1, adierazlearen taileko igoeran gehien eragin zuen aldagaia izan zen, eta horren ondoren, medikuntza-zerbitzuen , 2) eta garraio eta komunikazio-zerbitzuen (% 1,5) kostuen handitzea.

Adierazlearen azalpena

¶Ia hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren ezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du oduktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, unekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/27	Alemania	IFO enpresen egoera	101.8
08/27	Alemania	IFO aukerak	98.5
08/27	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	105.3
08/27	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	0.45
08/27	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	30.0
08/27	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 1,6
08/28	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	97
08/28	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	18
08/28	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	126.5
08/29	Japonia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	43.3
08/29	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.6
08/29	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1,7
08/29	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 4.0
08/29	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	% 0,5
08/30	Japonia	Hileko xehekako salmentak	-% 0.3
08/30	Espainia	Urte arteko KPIa	% 2,2
08/30	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	112.0
08/30	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.9
08/30	Alemania	Urte arteko KPIa	% 2.0
08/30	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
08/31	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-11
08/31	Japonia	Langabezia	% 2,4
08/31	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 2,6
08/31	Txina	PMI Composite	--
08/31	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 2,2
08/31	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
08/31	Eurogunea	Langabezia-tasa	% 8.2
08/31	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	63.0
08/31	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	95.7
08/31	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
08/31	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

JRTSA:

ilantze positiboa mundu osoko burtsa-indizeetan. Trumpek reserba Federalari eginiko kritikak, Jackson Holeko FEDen zordua eta AEBen eta Txinaren arteko negoziazio mertzialak izan ziren inbertsiogileen arreta erakarri zuteniak. Tirabira komertziala baretzeko esperantza kotizatu n ia aste osoan, nahiz eta bi alderdiek itxaropen ndiegirik ez izan. Azkenean, negoziatioek ez zuten rrapenik ekarri, baina elkarrizketak zintzoak eta aikitzaileak izan zirela adierazi zuen Txinak. Bestalde, umpek auto europarren inportazioei % 25eko tarifak artzeko mehatxua egin zuen, eta Txinari eta Europari ien dibisak manipulatzeko leporatu zien berriro. Gainera, statu Batuetako presidentek FEDen diru-politikaren rmalizazioaren kontra agertu zen beste behin. Trumpek eres-tasak igotzeagatik kritikatu zuen erakundea, zkundearen alde jokatu behar lukeela uste duelako, batez e aribidean diren negoziatio komertzialek dirauten artean. Ostiralean, FEDeko presidentek Jackson Holen z egin zuen, eta Erreserba Federalak eginiko interes-tasen angabeko handitzeak defendatu zituen, baita iraileko eran beste tasen igoera bat egiteko aukera aztertu ere. xe Zuriaren inguruko zalaparta politikoak arreta-gune izan en berriro. Besteak beste, Trumpen abokatu ohiak npaina politikoak finantzatzeko legea urratzearen uduntzat jo zuen bere burua, eta presidentea ere sartu en tartean. Egoera horren aurrean, politikan ziurgabetasun nte berri bat etorriko dela uste da, Azaroko uteskundeetan izan dezakeen eraginaren ondorioz.

ERRENTA FINKOAK:

ste lasaia "core" zor-merkatuetan, hala Europan nola statu Batuetan, non interes-tasek ia ez zuten aldaketarik an. 10 urterako bonu amerikarraren errentagarritasuna 5 jaitsi zen, % 2,81eraino. Alemaniako hamar urterako sak, aldiz, 4 op egin zuen gora, % 0,35eraino. Zor painiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari eskatutako rentagarritasunak 5 op egin zituen atzera, % 1,39raino, eta risku-prima 104 puntutara murriztu zen. Kredituak, stalde, hobera egin zuen eta bere diferentzialak estutu uen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Trumpek adierazi zuen ez zegoela ados interes-tasak igotzeko FEDen erabakiarekin, eta horrek ondorio txarrak izan zituen dibisa amerikarrean, % 1,88ko balioa galdu baitzuen euroaren aurrean. Yenak ere balioa galdu zuen euroaren aldean. Lehengaietan, petrolioaren prezioak % 5,69 egin zuen gora. Petrolio gordinaren inbentario estatubatuarren jaitsierak, dolarraren balio galerak eta AEBek ezarritako zehapenen ondorioz Iranen eskaintza urritzeko aukerak kotizazioa bultzatzeko balio izan zuten. Dolarraren balio galtzearekin, urrearen balioak gora egin zuen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Local)	1.647,70	0,79	3,88
IBEX 35	9.589,50	1,83	-4,52
DJ EURO STOXX 50	3.427,44	1,62	-2,18
DJ STOXX 50	3.069,10	0,29	-3,42
FTSE	7.577,49	0,25	-1,43
S&P 500	2.874,69	0,86	7,52
Dow Jones	25.790,35	0,47	4,33
NASDAQ	7.945,98	1,66	15,10
NIKKEI 225	22.601,77	1,49	-0,72
MSCI GORAKORRAK (Lo	58.203,07	2,38	-4,40
MEXBOL	49.633,77	2,84	0,57
BOVESPA	76.262,23	0,31	-0,18
SHANGHAI	2.858,35	2,27	-17,47
Errusia Rts Mosku	1.064,46	1,11	-7,79

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,60	0,06	0,03
ESPAINIA 2 URTE	-0,34	-0,04	0,00
AEB 2 URTE	2,62	0,01	0,74
ALEMANIA 10 URTE	0,35	0,04	-0,08
ESPAINIA 10 URTE	1,39	-0,05	-0,17
AEB 10 URTE	2,81	-0,05	0,40
ALEMANIA 30 URTE	1,01	0,04	-0,25
ESPAINIA 30 URTE	2,53	-0,03	-0,32
AEB 30 URTE	2,96	-0,06	0,22
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/23	66,24	-4,64	21,32
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23	288,39	-17,41	55,96

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Dolarra / Euroa	1,16	1,88	-3,31
Yena / Euroa	129,27	2,63	-4,50
Libera / Euroa	0,90	0,92	1,76

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	75,01	5,69	12,26
Urrea	1.205,90	1,76	-7,46



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.